



2013 URTEKO TXOSTENA





SORTZAILEA



EAEKO KOFINANTZATZAILEAK



NAFARROAKO KOFINANTZATZAILEAK





ZURE NORANZKOAN
GOAZ GEU ERE PEDALKA

900 10 11 43

www.gaztenpresa.org
info@gaztenpresa.org



AURKIBIDEA

1. **PRESIDENTEAREN GUTUNA**
 2. **GAZTENPRESA. NORTZUK GARA**
 3. GAZTENPRESA OSATZEN DUTEN PERTSONAK
 4. **JARDUNBIDEAK**
 - ENPRESA ANTOLAGUNTZA
 - ENPRESAK SORTZEA
 - ENPRESAK FINKATZEA
 - KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA
-





Ikuspegi ekonomikotik begiratuta, 2014 urteaz esan behar da planetako eskualde ekonomiko gehienetako Barne Produktu Gordinaren erregistroek kolore berdea hartuko dutela.

Urte nahasi batzuen ostean, munduak hezkundearen bidea berreskuratu du, luzeegia izan den krisi honen irtenbidea adieraziz; atzean, lan-merkatu kolpatua uzten du, orokorrean 200 milioi langabe baino gehiago baitaude.

Kopuru horrek gora egiten jarraituko du datozen urteotan, zeren enplegua lan-indarra baino erritmo geldoagoan haziko baita. Nolanahi ere, hazkundea da lan-merkatua munduan poliki-poliki normalizatzea ahalbidetuko duen gakoa.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere badira arrisku batzuk, gauzatzera iritsiz gero indarrik gabe utz litzaketenak espero ditugun aurrerapenak. Hain zuzen ere, bi azpimarratuko ditut:

- Ekonomiaren alorrean egondako hobekuntzaren eraginez, AEBetako **moneta-neurriak atzera** eraman dira; horrek karterak doitzeko prozesu global bat abiatu du, batez ere ekonomia emergenteak ukitu dituena.
- Eta ziurgabetasuna sortzen duen bete elementu bat **Txinako ekonomiaren motelaldia** da, garapen bidean dauden bete herrialde batzuetan izan litzakeen ondorioengatik.

Bi gai horiek, "taper" amerikarra eta Txinako hazkundearen motelaldia, mehatxagarriak izan litezke hazkunde globalarentzat, muturrera joanez gero.

Guztiarekin ere, gure aurreikuspen nagusiari begira, uste dugu probabilitate handiagoa dagoela orekak mantentzeko eta hasitako prozesua arrakastaz bukatzeko.

Euskadiri eta -orokorrean- Estatuari dagokienez, oparoaldian metatutako arazoek atzeratu egin dute krisialditik irteteko unea, garatutako herrialde nagusien aldean.

Espero dugu zergen alorrean egindako ahaleginak eta abiatutako erreforma estrukturalak emankorrak izaten hastea eta, kanpo-sektoreak aurtan lagunduta, inbertsioa igotzen hastea, lanpostuen sorrera garbia errealitate bilakatu dadin 2015 urtean.

Edonola ere, 2014 urterako aurreikusten dugun hazkundea % 0,8 da Euskadirentzat eta % 0,6 Estatuarentzat, eta erregistro horiek oso eragin txikia izango dute langabezia-tasan, zeren oso gutxi zuzenduko baitu beheranzko joera oraingo mailetatik.

PRESIDENTEAREN GUTUNA

XABIER EGIBAR

Bada, aurreikuspen itzaropentsu horretan hartzen du are garrantzi gehiago gure Gaztenpresa Fundazioak.

Esan dezakegu Gaztenpresak 2013an finantzatutako enpresen sorrera **aurreko ekitaldian baino % 25,5 gehiago igo dela; hala, emandako finantziazioaren maila 5,902 milioi €tik gorakoa izan da.**

Horrenbestez, beste urte batez, Euskal Herriko Fundazio nagusia izan gara enpresa-jarduera berriak sortzen laguntzeari dagokionez.

Une hauetan, baina, enplegua sortzea bezain garrantzitsua da enplegua finkatu ahal izatea; horregatik, garrantzitsua da aurten eta aurreko urteetan eraturako enpresetara zuzendutako ekintzak garatzea, informazioa, prestakuntza eta harremanak eskuratzen dizkieten sostenguak jaso ditzaten, "sarea egiten joateko".

Horretarako, baditugu finkapen-tailerrak, mintegiak, gure sare sozialak eta "Pro Aholkularitza"ren tresnak –aurten, **421 kontsulta** baino gehiago atenditu ditu-, profesional eta autonomoen eta haien negozioen beharretara egokitutako irtenbideak emateko xedez.

Gaur egun, ekintzailtzari Gaztenpresaren bidez lagunduz daraman denboran, esan dezakegu LABORAL Kutxak lagundu duela **3.258 enpresa eratzen eta horren bidez 5.832 lanpostu baino gehiago sortzen.**

Gustatuko litzaidake itxaropen mezu batez bukatzea; izan ere, gero eta interkonexio gehiago dituen gure mundu honetan, negozioak gero eta konplexuagoak dira, baina etengabe agertzen dira balioa sortzeko eta eskuratzeko aukera berriak ere.

Puntu horretan, enpresa-iniziatibak dituzten pertsonen protagonismo osoa hartzen dute.

Horregatik, gure Herriko beharrei erantzuten laguntzeko une bat da hau, berriz ere, eta horretarako proiektua bera egokitu behar diogu aurrean dugun errealitateari, enplegu eta aberastasunaren sorrera bultzatzen jarraitzeko, gure ekintzaileen proiektuak errealitate bihurtzen lagunduz, haien adina zeinahi delarik ere.



GAZTENPRESA

Gaztenpresa Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, Laboral Kutxaren gizarte-ekintzaren alorrekoa. Beraren asmoa da enplegua sortzen eta mantentzen laguntzen duten ekimenak sostengatzea eta ekintzak garatzea, enpresa-garapenari eta bere erabiltzaileen garapenari balioa ekartzen dioten programa eta zerbitzuen bitartez, bere aliatuei eta -oro har-gizarte osoari ere balioa ekartzeaz batera.

Fundazioaren helburuak hauexek dira:

- Pertsona ekintzaileak, batez ere gazteak.
- Laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak.
- Garapen-proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak.
- Sen ekintzailea beren ikasleen artean sustatu nahi duten prestakuntza-erakundeak.

Patronatua

Xabier Eguibar

Jon Emaldi

Ibon Urgoiti

Jose M^a Usatorre

Carlos Oses

Txema Pérez

Pello Ugalde

Javier Cortajarena

Iñaki Armentia

NORTZUK GARA?

Gure Boluntarioak

Jose txu Urrutia

Alex Gómez

Pilar Crespo

Iker Etxebarrieta

Aitor Berlanga

Juan María Osteriz

Iñaki Urtasun

Aitor Azpiazu

Iñaki Zamorano

Ibon Otaegi

Ainhoa Azurmendi

Javier Larrañaga

Fernando Reparaz

Eduardo Elizalde

Borja Gárate

Ander Toña

Eñaut Erdoiza

Pedro M^a Durán

Eduardo Beasain

Belén Larrauri

Juan Carlos Díez

José Pérez

Kontxi Alzaga

Iñaki Juanbeltz

Maitane Loyola

Naiara Lopetegi



JARDUNBIDEAK

1. Enpresa antolaguntza
2. Enpresak sortzea
3. Enpresak finkatzea
4. Kultura ekintzailea sustatzea



gaztenpresa
fundazioa

ENPRESA ANTOLAGUNTZA



5 etapa hauetan lagundu diezazukegu zure negozioia abian jartzen



1. Zure ideia

Gauza bera ote dira negozio-ideia bat eta negozio errentagarri bat? Gaztenpresan lagunduko dizugu ikertzen ea zure negozio-ideia benetan ote den negozio-aukera bat.



2. Plana

Enpresa baten negozio-plana edo bideragarritasun-plana ekintzaitzaren tresna garrantzitsua da. Bideragarritasun-plan bat egiten lagunduko dizugu.



3. Finantziarioa

Ekintzaileen arazo nagusietako bat finantziarioa izaten da. Horregatik, Gaztenpresan aholkularitza eskaintzen dizugu zure esku dituzun laguntza, diru-laguntza, mikorkreditu eta gisa berekoei buruz.



4. Tramiteak

Gaztenpresan badakigu, ondo jakin ere, enpresa bat sortzeko tramiteak astunak izaten direla; horregatik, gure profesionalen taldea ekintzaileen larruan jartzen da.



5. Finkapena

Negozio bat abiatzea prozesu gogor eta konplikatu da. Hastea lortu ondoren, hainbesteko lanaren emaitza finkatzeko unea da.

ENPRESAK SORTZEA

HELBURU OROKORRA

Negozio txiki eta mikroETeen sorrera, garapena eta iraupena sustatzea, autoenpleguaren bitartez, langabezian edo lanik gabe geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat.

265 ENPRESA
SORTUTA
2013AN

458 LANPOSTU
SORTUTA
2013AN

2013AN SORTUTAKO ENPRESAK

ARABA	65
BIZKAIA	103
GIPUZKOA	71
NAFARROA	26
GUZTIRA	265

2013 SORTUTAKO LANPOSTUAK

ARABA	116
BIZKAIA	180
GIPUZKOA	117
NAFARROA	45
GUZTIRA	458




3.000

ENPRESA BAINO
GEHIAGO SORTUTA

6.000

LANPOSTU
INGURU SORTUTA



2.013_{ko} PROFILA

38

Batez besteko adina

%53

gizonak

%47

emakumeak

IKASKETA MAILA

%70

unibertsitatez
besteko ikasketak

%30

unibertsitate-
ikasketak

FORMA JURIDIKOA

%05

KOOP.

%83

BANAKO O.E.

12%

S.M.

52.700

BATEZ BESTEKO INBERTSIOA

2013an, enpresa berriak abiatzera zuzendutako batez besteko inbertsioa 52.700 euro izan dira.

38.100

BATEZ TESTEKO MAILEGUA

2013an, enpresa-proiektua gauzatzeko beharrezkoa izan den batez besteko mailegua 38.100 euro izan dira.

JARDUERA SEKTOREA

%35

MERKATARITZA

%59

ZERBITZUAK

%06

BESTE BATZUK



ENPRESAK FINKATZEA

Atal honen helburua izan da enpresa berriak merkatuan finkatzea. Bertan sartzen diren erakundeak hauexek dira: Gaztenpresa Fundazioaren onuradunak izan diren eta enpresa finkatzeko fasean laguntza behar duten mikroenpresak.



gaztenpresa
fundazioa



Horregatik guztiagatik, Gaztenpresa eta Laboral Kutxatik laguntza hauek ematen dira finkapenerako:

1. Prestakuntza praktikoko tailerrak eta mintegiak, enpresei egokituta.
2. Aholkularitza espezializatua enpresentzat.
3. "Sare Sozial" bat Interneten eskura izatea, helburu hauek betetzeko:
 - a. Presentzia izatea interneten.
 - b. Abian jartzen diren beste enpresa batzuekin kontaktatzea, lankidetzak edo transakzioak egiteko xedez.
 - c. Zuzeneko harremanak izatea Gaztenpresarekin.
4. Laboral Kutxaren PRO zerbitzua: kontabilitateari, zergei, lan-arloari eta diru-laguntzei buruzko aholkularitzarako, tresna hauen bitartez:
 - a. Webgunea eta aldizkari elektronikoa.

- b. Kontakturako posta elektronikoa eta 900 telefonoa.
- c. Mintegi presentzialak.

Gauzatutako ekintzen bidez eguneroko zereginetan lagundu nahi zaio enpresariari, erabakiak hartzerakoan, hauxe ahalbidetuz:

- Bere ikuspegia eta erabakiak kontrastatzea.
- Ikuspuntu berriak ikustea.
- Enpresen arteko harremanak ahalbidetzea, lotura horizontal eta bertikalen bitartez.
- Harreman komertzialak eta lankidetzak bilatzea, finantza-baliabideak injektatzetik harago.

TAILER ETA
MINTEGI
KOPURUA

46

PARTE-HARTZAILE
KOPURUA

1.079

AHOLKULARITZA
PRESENTZIALA

49

ENPRESEEI
ERANTZUNDAKO
KONTSULTAK

421

Tailer bakoitzean emandako gaiak hauexek izan ziren:

- Datuen babesa.
- Oinarritzko fakturazio tresnak.
- Oinarritzko Kudeaketa Kontrola ostalaritzarako.
- Fruta-denden oinarritzko Kudeaketa Kontrola.
- Gozotegiak abiatzea.

Gai multzoak:

- Inbertsio berriei heltzea.
- Ixteko erabakiak.
- Merkatu aldaketa eta ekintza berriak txertatzeko beharra.
- Laguntza berriak eskatzea.

KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEA

Sostengua ematea kultura ekintzailea eta proiektu berritzaileak beren ikasleen artean sustatu nahi dituzten Unibertsitateei eta Lanbide Heziketako ikastetxeei, laguntza ekonomiko eta jarduera espezifikoaren bitartez. Autoenplegua lan-alternatiba gisa ezagutzen ez duten langabeei.





gaztenpresa
fundazioa



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

EKITEN

1go. saria: Cooking Points Proiektua

Biztanle ugariko hiri batean kokatutako lokal bat izango litzateke, era guztietako sukalde-tresnez hornitua: labea, bitrozeramika, platerak, mahaiaik... Edozein motatako platerak egiteko behar den guztia, eta horretaz gozatzeko esparru bat. Prezio jakin bat ordainduta, kontsumitzailea instalazioetara sartu ahal izango litzateke janaria prestatzeko eta jateko, eta baita platerak prestatzeko behar diren produktuak ere erosteko.

Talde eragilea: Miren Lasuen, Katalin Madariaga eta Unai Bergara, Enpresa Zientzien Fakultatekoak (LEINN).

Sariaren zenbatekoa 1.000 euro dira

2. saria: Zerbitzu Integraleko Proiektua Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegituren instalazio eta mantenurako.

Urte gutxiren buruan ibilgailu elektrikoa protagonista izango dela aurreikusita, negozio-aukera bat aurkitu da azpiegitura elektrikoaren kudeaketaren alorrean. Aurrena, azterlan bat egiten da bezeroarentzat, ibilgailu elektrikoak kargatzeko dauden behar elektrikoak buruzkoa. Eskaria ezagutu ondoren, eskari hori asetzeko plan bat egiten da, honako alderdi hauek barne sartuta: kargatze-

puntuen kopurua eta kokapen estrategikoa eta beste zerbitzu batzuk, hala nola bateriak arin aldatzeko establezimendu bat. Halaber, enpresa arduratzen da aipatutako zerbitzua instalatzeaz eta mantentzeaz. Osagarri gisa, sistemak badu software bat, kargatze-puntu guztien kokapena eta eskuragarritasuna erakusten dituen, ibilgailuaren GPSaren bidez edo beste gailu batzuen bidez..

Talde eragilea: Igor Ramos, Mitxel Uriarte, Aitor Uriarte, Unai Zabala, Industria Ingeniaritza Eskolakoak.

Sariaren zenbatekoa 500 euro dira

3. saria: LäSteps Proiektua

Etorkizuneko belaunaldiak hezten saiatzen gara, grafiti eraikitzailea sustatuz grafiti suntsitzailearen ordeaz, artea bandalismoaren ordeaz. Gainera, artea erabiltzen dugu komunitate-gatazkak konpontzeko eta herritarren balio komunak sustatzeko, hori guztia gure hirietako kaleetan muralak pintatuz.

Talde eragilea: Agustín Otegi, Iñigo Arrieta, Lander Subiza, Enpresa Zientzien Fakultatekoak (LEINN)

Sariaren zenbatekoa 500 euro dira



NAFARROAKO UNIBERTSITATEA – TECNUN

Kirolaren alorreko IX. Asmamen eta Diseinu lehiaketaren babes. Lehiaketa honen helburu nagusiak hauexek dira:

- Sormena eta ideien garapena akuilatzen ditu.
- Taldekako lana sustatzen du, eta ideiak sortzeko tekniken erabilera ere bai.
- Sen kritikoa sustatzea, produktuen hobekuntzara zuzenduta.
- Marrazketarako tresna informatikoen erabilera sustatzea.

Hori guztia batxilergoko 1. eta 2. mailako pertsona gazteei zuzenduta, kirolaren alorrean, hain zuzen ere kirol -produktuei begira.

9. Edizioan izandako emaitzak TECNUN FEUN SARI KONPARTITUA

Lizarrako Nuestra Señora del Puy Ikastetxea, Nafarroa. "Safebike" lanagatik.

Lorcako Ramón Arcas Meca BHI, Murtzia. "Duerme seguro, sueña tranquilo" lanagatik. 199. Taldea.

TECNUN GAZTENPRESA SARI KONPARTITUA

Donostiako Ekintza Ikastola, Gipuzkoa. "Silla con capota" lanagatik. 228. Taldea.

Sevillako Tabladilla Ikastetxea. "Spyfrigo" lanagatik. 284. Taldea.

TECNUN IKOR SARI KONPARTITUA

Tenerifeko Santa Cruzeko Colegio Hispano Británico. "Informer" lanagatik. 132. Taldea.

Elxeko Pedro Ibarra Ruis BHI, Alacant. "Audífono con soporte para gafas" lanagatik. 051. Taldea.

Gaztenpresaren ekarpena: 2.000 €, bai sarietarako eta bai material suntsikorerrako.

Sariak banatzeko ekitaldi ofiziala 2013ko apirilaren 12an izan zen.

Gaztenpresaren sostengua,
prestakuntza-hitzaldi, topaketa
eta enpresa-ekimenen
lehiaketan bitartez.

